

**AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO MONITORE IKASTAROA DIRU-
LAGUNTZA:OINARRIAK**

1.-Oinarrien xedea eta zertarakoa.

Oinarri hauen xedea da Aisialdiko eta Denbora Libreko Monitore ikastaroan matrikulatzeak eragindako gastuak finantzatzea.

2.-Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak.

Diruz lagunduko dira 2023ko urriaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra arte egindako ikastaroren matrikulak. Kilometrajea ez da diruz lagunduko.

Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak eta trinkoak.

3.-Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Helburu honetarako, guztira, 2.000,00€ erabiliko dira, 3270 4820025 BEGIRALEEN IKASTARORAKO DIRULAGUNTZA/SUBV. CURSOS MONITORES kredituaren kontura. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleitu duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Dirulaguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua gainditzen badute, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da aurrekontuetan gehienez ere aurreikusitako diru-esleipena, beti ere deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean. Dena den, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 450,00 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

4.-Deialdiaren publizitatea.

Deialdiaren testu osoa Etxarri Aranazko webgunean eta tabloian argitaratuko da.

5.-Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 1etik 2024ko uztailaren 31ra bitartekoa izango da. Epe hori luzaezina izanen da.

6.-Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da Etxarri Aranazko Udaleko bulegoetako erregistro orokorrean edo erregistro elektronikoaren bidez:

a) Eskabide orokorra beteta.

b) Eskatzailearen nortasun-agiriaren kopia.

c) Erroldatze ziurtagiria, eskabideak aurkezteko epea hasten deneko antzintasuna duena gutxienez ere. Ziurtagirian eskatzailea noiztik dagoen udalerrri horretan erroldatuta agertu beharko da.

d) Urtxintxa Aisialdiko Hezitzaileen Eskolak edo dagokionak eginiko ziurtagiria asistentziari edo aprobetxamenduari dagokionez eta matrikula ordaindu izanaren agiria.

e) Aitorpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteko edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari dagokion ebatzpenaren kopia erantsiko da.

Ez dira posta elektronikoko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

7.-Eskatzaileak bete beharreko baldintzak.

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintza hauek:

a) Diruz lagundutako ikastaroaren %80an parte hartu duela frogatzea.

b) Etxarri Aranatzeko erroldatua egotea.

c) Etxarri Aranazko udalarekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea (Etxarriko Udalak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko da).

8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bar falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

9.- Ebazpena.

Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Etxarri Aranazko Udaleko Alkateak emango du.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen ebazpenean zehaztu beharko da nori eman zaion dirulaguntza, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtsio bideak, zein

organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurtsobide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2024ko abenduaren 31an amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsizat jotzen ahalko da.

10.- Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordaindu dira. Banku-transferentzia egingen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatu ahalko da.

11.- Bateragarritasuna.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk objektu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik garatzen ez bada. Horiek horrela, Etxarri Aranazko udaleko dirulaguntza eskatu ahal izateko, derrigorrezkoa da xede berbera duen Nafarroako Gazteriaren Institutuak dirulaguntza aurretik eskatzea. Etxarriko Udaleko dirulaguntza Nafarroako Gazteriaren Institutuko dirulaguntzaren osagarria izanen da. Hortaz, bien artean gastuaren %100 gainditzen bada, Etxarri Aranazko Udaleko dirulaguntza jaitziko da portzentaje horretara iritsi arte.

12.-Arau-hasute eta zehapenak.

Arau hauste eta zehapenei dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

Arau hauste eta zehapenei dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV.tituluan xedatutakoak aginduko du. Zehapen-prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V.tituluan ezarritakoa izanen da.

13.-Datuen babesa.

a) Tratamenduaren arduraduna: Etxarri Aranazko Udala.

b) Tratamenduaren helburua: Dirulaguntzak kudeatzea.

c) Datuen komunikazioak: Datuak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko dira, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera. Era berean, eskatzailea erroldatuta dagoen udalari jakinaraz dakizkioke deialdiaren 11.klausula, bateragarritasunari buruzkoa, betetzeko.

d) Eskubideak: Besteak beste datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, Etxarri Aranazko Udalera joz.

14.- Ordezko arauak.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

15.- Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, egiten den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.